



**ARANTZako UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

## 2019KO OTSAILAREN 4KO BILERAREN AKTA.

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohikoa.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2019.02.04.  
**Ordua:** Arratsaldeko 18:00etan.  
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

**Alkatea:** Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

### **Zinegotziak:**

Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Jose Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Juan Maria Gonzalez Burguete jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Mentxu Peña Lizarazu and.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespena.
- 2.-Karrika Nagusia zabaltzeko obrak.
- 3.-Goienburu Karrika moldatzeko obrak.
- 4.-Jose Joaquin Urreta Arribillaga jauna: mailaren osagarria emateko eskaera.
- 5.-Isidro Echeverria Alzuri jauna: oihan probetxamendua egiteko eskaera.
- 6.-Iosu Larrechea Larralde jauna: oihan probetxamendua egiteko eskaera.
- 7.-Juncal Iturria Alzuri andrea: oihan probetxamendua egiteko eskaera.
- 8.-Ekaitza elkartearen eskaera frontoiari buruz.
- 9.-Araba euskaraz 2019: dirulaguntza eskaera.
- 10.-Herri Urrats: dirulaguntza eskaera.
- 11.- Alkatearen ebazpenak.
- 12.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

Ikusirik 2019ko urtarrilaren 14an egindako bileraren akta, aho batez, ONARTU DUTE.

### **2.-KARRIKA NAGUSIA ZABALTZEKO OBRAK.**

Ikusirik Karrika Nagusia kalearen zati bat zabaltzeko egindako proiektua, Igor Lopez de Uralde Gutierrez arkitektoak sinatua.

Kontuan hartuz obrak lur partikularrak ukitzen dituztela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Proiektuaren kopia ukitzen dituen jabe guztiei eta ingurukoei jakinaraztea, otsailaren 18a arte epea emanez ekarpenak eta alegazioak aurkezteko edota aldaketak eskatzeko.

### **3.-GOIENBURU KARRIKA MOLDATZEKO OBRAK.**

Ikusirik Goienburu karrika moldatzeko egindako proiektua, Beñat Aleman Ollo arkitekto teknikoak sinatua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Proiektuaren kopia inguruko jabe guztiei jakinaraztea, otsailaren 18a arte epea emanez ekarpenak eta alegazioak aurkezteko edota aldaketak eskatzeko.

### **4.-JOSE JOAQUIN URRETA ARRIBILLAGA JAUNA: MAILAREN OSAGARRIA EMATEKO ESKAERA.**

Ikusirik Jose Joquin Urreta Arribillaga jaunak aurkeztutako eskaera, C mailaren osagarria ordaintzeko eskatuz.

Ikusirik Biderka enpresaren 2018ko otsailaren 4ko txosten juridikoa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Jose Joaquin Urreta Arribillaga jaunari C mailaren %12ko osagarria onartzea, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera.
- 2) 2019ko plantilla organikoaren espedientearen aldaketa egitea.

### **5.- ISIDRO ECHEVERRIA ALZURI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDUA ESKAERA.**

Ikusirik Isidro Echeverria Alzuri jaunak aurkeztutako eskaera, Alkatxuri eta Arruzpi alderdian dauden zuhaitzen (pinu insignis) probetxamendua egiteko (matarrasa), 2. poligonoko 218. eta 193. lur zatietan.

Ikusirik Isidro Echeverria Alzuri jaunak aurkeztutako eskaera, Arruzpi alderdian dauden zuhaitzen (haritz amerikanoa) probetxamendua egiteko (entresaka), 2. poligonoko 125. lur zatian.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Isidro Echeverria Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerei aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaerak Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea probetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.

4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.



## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

### **6-IOSU LARRECHEA LARRALDE JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDUA ESKAERA.**

Ikusirik Iosu Larrechea Larralde jaunak aurkeztutako eskaera, Bordalarrea eta Meaka alderdietan dauden zuhaitzen (haritz amerikanoa) probetxamendua egiteko (entresaka), 5. poligonoko 223., 224. eta 750. lur zatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Iosu Larrechea Larralde jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea probetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.
- 4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.
- 5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

### **7.- JUNCAL ITURRIA ALZURI ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDUA ESKAERA.**

Ikusirik Juncal Iturria Alzuri andreak aurkeztutako eskaera, Egibeltza eta Egiluze alderdietan dauden zuhaitzen (akaziak) probetxamendua egiteko (entresaka), 5. poligonoko 261., 262. eta 728. lur zatietan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Juncal Iturria Alzuri andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendu hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.
- 2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea probetxamendua egin ondoren itxidura kentzeko asmoa izanik, gomendatzen dela bildu eta bertan ez uztea.
- 4) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.
- 5) Akordio hau eskatzaileari jakinaraztea.

### **8.-EKAITZA ELKARTEAREN ESKAERA FRONTOIARI BURUZ.**

Arantzako Udaleko alkateak, 2018ko urriaren 15eko 130/2018 ebazpenaren bidez, baimena eman zion Ekaitza Elkarteari frontoia erabiltzeko (pilota eskolako entrenamendu eta pilota txapelketak burutzeko) 200,00 euro ordaintzeko baldintza pean argiaren kontsumoa eta garbitzeko lanen gastuak estaltzeko.

Orain Ekaitza Elkartek aurkeztu duen idatzian, frontoiko argia eta garbitasuna udalak bere gain hartzea eskatzen du, pilota eskola ez delakoz diru sarrera ematen duen ekintza bat.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Ekaitza Elkarteari eskatutako 200,00 euro anulatzea eta ez eskatzea.
- 2) Ordez, Ekaitza Elkarteari 200,00 euroko fidantza eskatzea, ikasturte bukaeran itzuliko dena.

### **9.-ARABA EUSKARAZ 2019: DIRULAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Araba Euskaraz Elkarateak aurkeztutako idatzia, 2019. urtean Araba Euskaraz jaia antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Udalak dituen lehentasun eta beharrak.

Kontuan hartuz 2019rako aurrekontuan ez dagoela partidarik horretarako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Eskatutako diru laguntza ez ematea aipatutako arrazoiengatik.

### **10.-HERRI URRATS: DIRULAGUNTZA ESKAERA**

Ikusirik Herri Urratsek aurkeztutako idatzia, 2019. urtean euskararen aldeko besta antolatzeko diru laguntza eskatuz.

Kontuan hartuz Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurreikusia duela laguntza ematea 2019ko aurrekontuan.

Kontuan izanik Arantzako Udala Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kidea dela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntzarik ez ematea aipatutako arrazoiarengatik.

### **11.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bilera geroztik emandako ebazpenen berri eman du: 2019ko 4. ebazpenetik 13. ebazpena arte.

### **12.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

**Gai zerrendatik kanpo eta, aho batez, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:**

### **13.- MIKEL KABIKOITZ CARRERA SAROBE JAUNAREN EGOERARI BUZUKO MOZIOA.**

Gaur egun Réau-Sud Francilien espetxean den Mikel Kabikoitz CARRERA SAROBE, Elixabete ITURRIA ALMANDOZen bikotekidea eta Jare ITURRIA CARRERAREN aita da, denak gure herriko biztanleak.

Mikel CARRERA SAROBE bere senideengatik 930 kilometro baino gehiagora espetxeratua da, eta euskal preso gizon bakarra da espetxe hortan.

Europako Giza Eskubideen Itunaren 8. artikulua bitzita pribatu eta familiarraren errespetuaren eskubidea babesten du, eskubide honek espetxean den persona orok bere familiarekin eta kanpokoarekin harremanak atxikitzeke eskubidea barnebiltzen du.

Mikel CARRERA SAROBE bere senideengatik hain urrun mantentzeak bidaia luze, biziki garesti eta akigarriak fisikoki zein mentalki, batez ere umeendako, egitera behartzen ditu. Bere familia bi aldiz zigortua da, bere senidea presondegian edukitzeaz gain, harremanak mantentzeko esfortzu izugarriak eman behar ditu.





## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 928 919  
arantza.udala@arantza.eus  
www.arantza.eus

Azken hilabete hauetan, Estatu frantsesean diren euskal preso gizon gehiengo Mont de Marsan eta Lannemezaneko espetxeetara hurbilduak izan dira. Euskal Herriko egoera politikoa aunitz aldatu da, urte hauetan. Bake prozesu bat martxan da, egonkortu behar dena. Euskal gizartearen baitan, gehiengo batek euskal presoak hurbilduak izan daitzeen eskatzen du.

Horren aurrean, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Aldarrikapen horrekin bat egitea eta MIKEL CARRERA SAROBE bere familiatik hurbildua eta Lannemezaneko espetxera mugitua izatea eskatzen du.

### 14.- 2019. KORRIKA.

Aditzera ematen da aurten Korrika Bortzirietatik pasako dela apirilaren 7 eta 8 arteko gauean.

Hori dela eta, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Kilometroa erostea Udalaren izenean (600,00 euro).

### 15.-OSASUN KONTSULTATEGIA BERRITZEKO ESKAERA.

2019ko urtarrilaren 22an argitaratu da Nafarroako Aldizkari Ofizialean Osasunbidea- Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 1587/2018 ebazpena, dirulaguntzak emateko deialdia onesten duena herrietako kontsultategiak eta kontsultategi lagungarriak eraberritu eta handitzeko.

Ikusirik herriko osasun kontsultak dituen beharrak.

Ikusirik LUA arkitektoak egindako memoria baloratua.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Diru laguntza eskaera igortzea osasun kontsulta berritzeko.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo da eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAk,  
Juan Miguel Almandoz Mitxelena.



